

**GIPUZKOA ERROMATARREN GARAIAN.
AURKIKUNTZAK ERROMATARREN EZAGUTZAN
MAPA BERRIA**

Oso urriak izan dira Gipuzkoa bezalako eskualdeei zegokienean orain dela 40 edo 50 urte arte erromatarren presentzia adierazten zuten berriak. Orain, baina, oso ugaria eta sakona izan zela uste izatera heldu gara, azken urte hauetan egin izan diren ikerketa arkeologikoei esker.

Presentzia horren adierazgarri behinenak ditugu, batez ere, aurkitu izan diren bide edo bide-sareak, merkataritza, gerra eta gudarosteak, ideia eta ohiturak, zuzenbidea, ageri diren erlijio adierazpenak, aurkitutako kokaguneak eta gainerako aurkikuntza arkeologikoak; eta guzti hori, hainbatean, bertako biztanleen eta erromatarren artean izandako elkarbizitza ‘baketsuari’ esker, haien interes nagusia ez baitzen kultura eta hizkuntza ezartzea, inperioaren agintea ezarri eta natur ondusun eta aberastasunen jabe egitea baizik.

* * *

Alabaina, ‘erromanizazioari’ buruz hitz egiterakoan errealtate anitza ageri zaigu aurrez aurre, hitz egiteko era batzuei zein edukiei dagokienean. “Erromanizazio” hitzak berak zenbait galdera jartzen dizkigu aurrean beraren esanahia ulertzeko unean.

“Erromanizazio” hitz zabala hainbat ikuspegi kontuan hartuz aztertu beharko litzateke, baina ez dugu honako hau horretarako unea. Ugariak dira gogoan izateko ikuspegiak: akul-

turazioa, transkultrazioa, asimilazioa eta abar... eta egintza horiek izandako intentsitatea edota ezarpen-maila.

Bestalde, hainbat mendetako eraginak ez du esan nahi hasieratan, ‘erromanizazioa’ deitua abian jarri zenean, dagoeneko menderatutako herriaren hizkuntza eta kultura erromatar bihurtzeko asmoa izan zenik...

‘Erromanizazioa’, hain zuzen ere, menderatze-jarduna, nekazaritza eta meategien ustiatzea, harrapaketak nahiz bortxaketak, etb. kontuan direla aztertuz gero, harakoak izan zuen benetako ikuspegi eraginkorrari buruz mintzatzen ari-tuko ginateke.

Kontuan hartzeko beste zerbaitekin, tokien eta eskualdeen arteko berezitasunak dditugu, ez baita izaten berdina alde batean edota bestean, eta eskualde berean ere alde handiak izan daitezke; horrek, bada, gehiegi orokortzea alde batera uztea eskatzen du.

Hori horrela, duela zenbait hamarkada asko nabarmentzen ziren eskualdeen zein probintzien arteko ezberdintasunak garai hartako ezagutzen arabera; gaur egun, euskal probintzien ‘erromanizazioari’ dagokionez, halako ezberdintasunak askoz ere txikiagoak izan zirela ikusten da.

Ignacio Barandiarán, izen handiko ikertzailek, 1976an dagoeneko ‘erromanizazioari’ buruzko faktore berriak ikusten zituen arren, oso sakontasun txikikoa izan zela bai Gipuzkoan bai Bizkaian uste zuen. Honako hauek hartzen zituen ‘erromanizazioaren’ ezaugarritzat: 1. Legioetan ibili ondoren lizenziatuen kokapena. 2 Erromatar armadako gudari-talde laguntzaileen artean bertako jendearen presentzia. 3 Erromak antolatuta izandako jendeen tokialdaketak eta kokapenak. 4 Bide sare zabal baten eta portu garrantzitsuen eratzea eta manten-

tzea. 5 hizkuntza eta zuzenbide komuna. 6 Kristautasunaren zabalkunde etengabea⁵.

Baldintza hauek kontu handiz hartuz, Mertxe Urteaga eta Javier Arcek, azken ikerketetan oinarrituz erantzuna eman zioten 2011n, baldintza horiek Gipuzkoan betetzen zirela adieraziz⁶. Azken hamarkadetan egin diren aurrerakuntzen egiaztapena dugu. Horrela, ikerlari bi horiek aurkezten diguten erromatar aztarnen mapa, orain dela 40 urte egindakoekin erkatuz gero, oso ezberdina dela dakusagu; hau da, aldeak argi erakusten du azken hamarkadetako ikerkuntzek ekarri dituzten aldaketak⁷.

Gehienek onartzen dute baskoiek eta beren auzokide ziren bardulo, karistiar, autrigoi eta abar ondo konpontzen zirela erromatarrekin; itxura denez, beraien artean nolabaiteko erromatar-baskoien arteko adiskidetasuna izan zela⁸; egia esan, ez

⁵ Cf. BARANDIARAN MAESTU, Ignacio, *Guipúzcoa en la edad antigua. Protophistoria y Romanización*, Zarauz 21976, pp. 74-76.

⁶ URTEAGA, M. - ARCE, J., *Erromatar arkeologia Gipuzkoan. Arqueología romana...*, Donostia-San Sebastián 2011, p. 10: "Baskoiaak Erromaren armadaz alistatu ziren eta, logikoa denez, pentsatu behar dugu beren herrira itzuli zirela lizentziatu ondoren; Gipuzkoan bazen erromatarren bide sare bat, eta baita portu batzuk ere, Irungoa kasu, harremanak eta komunikazioak ahalbidetzarren; hizkuntza idatzia, latina elegia, grafiti askotan aurkitzen dugu; *saltus vasconum* entitate ekonomiko-juridiko gisa existitzeak eta erromatarrek meategiak ustiatzeak berekin dakarte, ezinbestean, inguruko populazioetan presentzia eta eragin ukaezina izatea; eta kristuatasunaren hedapen progresiboa ere gertatu zen, penintsulako beste eremu edo eskualde batzuetan legez zenbaitetan".

⁷ Cf. BARANDIARAN MAESTU, Ig., *Guipúzcoa en la edad antigua...*, Zarauz 21976, p. 117; URTEAGA, M. - ARCE, J., *Erromatar arkeologia Gipuzkoan. Arqueología romana...*, Donostia-San Sebastián 2011, p. 9.

⁸ Cf. LARRAÑAGA ELORZA, Koldo, *Romanización*, in: *Diccionario Enciclopédico Vasco*. (EGIPV, 41) (San Sebastián, 1996) 278; BARANDIARAN MAESTU, Ignacio, *La romanización del País Vasco*, in: *Ciclo de Conferencias «Historia de Guipúzcoa»*. San Sebastián, 1978, 18, 35-36; MONTENEGRO DUQUE, Angel - BLÁZQUEZ MARTÍNEZ, José María - SOLANA SAINZ, José María, *España Romana*, Madrid 1986, 545; FATÁS, Guillermo, *Notas sobre el territorio vascón en la edad antigua*, Veleia (1985-1986, 2-3.zk.) 386-390; URTEAGA, M. - ARCE, J., *Erromatar arkeologia Gipuzkoan. Arqueología romana...*, Donostia-San Se-

dira inoiz elkarren aurka ageri⁹. Are gehiago, baskoiak, barduliarrak eta beste zenbait Erromatarren aldeko edo ordezkoko gisa ageri dira eskualde batzuetan, bereziki mugen eta ordenaren aldeko defentsa lanetan jardunez. Egoera honetan baskoiek onurak lortu zituzten; ez bakarrik lurraldearen defentsan, baizik eta gizarte-ekonomia alorrean ere, ekoizpen-jarduera handituz, hiri-bizitza berriak lortuz, etab.¹⁰

Erromatarren konkistek ‘bakea’ ezarri zuten baskoien eta auzokoen inguruetan; aginteak ezarritako bakea zen. Kristoren aurreko hamarkadetan hasita gauzatu zen pixkana-pixkanakako integratzea erromatarren kontrolpeko eremuan¹¹.

Erromatar izatearen asimilazio edo integrazio horren adierazgarri behinena erromatarren armadaren instituzioa dugu. Zerbitzu militarra gizartearen gora egiteko bide bat izan ohi zen. Eta baskoiek ere parte hartu zuten zeregin horretan beste nazioek bezala. Eta hori taldeka nahiz bakarka egin zuten lekukotza ugarietan ageri denez, batez ere lehen hiru mendeetan. Errealitate honek beste bat ere adierazten du: hain zuzen ere, beren lurretara beste ‘status’ bat zutela, hots, erromatar kultura maila lortuta –alde batera utzi gabe erlijiotasun paganoa edota agian kristaua– itzultzen ziren soldadu beteranoen izaera.

Horrela, II. Mendeko data ezberdinetan aipaturik ageri da Mauritanian, Marokon eta Danubio eta Ozitaniako lurretan *Cohors II Vasconum civium Romanorum* (Cohors II Hispanorum civium Romanorum, Cohors II Hispanorum Vasconum,

bastián 2011, 24-25.

⁹ Cf. MONTENEGRO DUQUE, Angel - BLÁZQUEZ MARTÍNEZ, José María - SOLANA SAINZ, José María, *España Romana*, Madrid 1986, 545; URTEAGA, M. - ARCE, J., *Erromatar arkeologia Gipuzkoan. Arqueología romana...*, Donostia-San Sebastián 2011, p. 25.

¹⁰ Cf. LARRAÑAGA ELORZA, K., *El hecho colonial romano...*, Vitoria-Gasteiz 2007, pp. 95-127.

¹¹ Cf. URTEAGA, M. - ARCE, J., *Erromatar arkeologia Gipuzkoan. Arqueología romana...*, Donostia-San Sebastián 2011, p. 25.

Cohors II Hispanorum vasconum civium Romanorum, Cohors II Hispana vasconum, Cohors II Hispana vasconum civium romanorum, Cohors II Vasconum equitata). Era berean, ezaguna dugu, eta hau dugu orain gehiago interesatzen zaiguna, I. mendearen amaieran hasi eta II. mende osoan jarraitu zuen *Cohors I Fida Vardullorum civium romanorum equitata miliaria* (mila gizon inguruk osatua); kohorte honek III. mendean zehar jarraitu zuen. Suposatzekoa da, testigantzarik ageri ez bada ere, izango zela barduliarrek osaturiko beste *Cohors II* bat ere. Beste behin aurkitu ditugu *Cohors Carietum et Veniaesum* deituari buruzko berriak; jatorria karistiarra eta beleiarra (Veleia) zutenek osatua¹².

Interesgarria dugu gogoratzea orain dela 40 urte erromatarren presentziaren aztarnak Gipuzkoan 13 herri edo zonaldetara (35 leku konkretutara edo) mugatzen baziren ere, une onetan 32 herri edo zonaldetara (80 leku konkretu baino gehiagotara) heltzen direla; ikus daitekeenez oso nabarmena da aldea, hau da, bikoiztu egiten da. Hori horrela, errealitate horrek Gipuzkoako ‘erromanizazioa’ edo erromatarren presentzia deitu izan dena beste ikuspegi zeharo ezberdinez begiratzera garamatza.

Are gehiago: M. Urteagak eta J. Arcek uste dute “Gipuzkoan dauden erromatarren aztarnen multzo txiki-txiki bat besterik ez dela agertu oraingoz, eta arkeologiaren aurkikuntzek areagotzen segituko dutela datozen urteetan ere”¹³.

¹² Begiratu “Corpus inscriptionum latinorum” desberdinak; halakoetan aurkitzen dira seinalatutako testuinguruak eta hainbatean gaur egungo bibliografía: García Bellido, Antonio, *Los «Vardulli» en el ejército romano*, BRS-VAP 10 (1954) 131-139; García Bellido, Antonio, *Los «vascos» en el ejército romano*, FLV 1 (1969) 97-107; Segura Munguia, Santiago, *Mil años de historia vasca a través de la literatura greco-latina (De Aníbal a Carlomagno)*, Bilbao 1997, pp. 131-141; Larrañaga Elorza, K., *El hecho colonial romano...*, Victoria-Gasteiz 2007, pp. 128-131; Ramírez Sádaba, José Luis, *Vascones por las tierras del Imperio romano*, PV 76 (2015) 374-378; Espinosa Ruiz, Urbano, *Calagurris Iulia*. Logroño, 1984, pp. 146-153.

¹³ Urteaga, M. - Arce, J., *Erromatar arkeologia Gipuzkoan. Arqueología*

GIPUZKOA ERROMATARREN DENBORAN AURKIKUNTZA GUZTIAK





Hurrengo lerroetan deskribapen labur bat eskaintzen dut: horrela presentzia horri dagokion zabalkundea ikusiko da (kaltateari zein esanahiari dagokionez zeharo ezberdina):

Aia: ***Urezberoetako Kanposantu zaharra***: erromatarren garaiko okupazioa, bertan produzitutako zeramikako ostilamenduekin. III. et IV. mendeak.

Andoain: ***Goiburuko San Esteban***: dozenaka zeramika zati, guztiak produkzio lokalekoak. Erromatarren garaikoak. Data ezberdinetako mila bat txanponen aurkikuntza, halakoen artean ehun bat Konstantino I.aren garaikoak, K. o.ko 330 eta 335 urteen artekoak.

Aretxabaleta: ***Iruaxpe III-ko baitzuloa***: erromatar garaiko depositua; erromatar garaiko metakinek zeramika inportatuen bilduma garrantzitsuak (bai *sigilla* hispaniko berantiarrenak bai paleokristautik eratorritako *sigillata*). Okupazio fase hau V. mendekoa da.

Arrasate: San Balerioko idazkuna: Valerio Tiroren zinhitzezko idazkuna; Valerio Tirok bertoko Dialco jainkoari eskainitakoa.

Astigarraga:

Elemazalka: bertan produzitutako erromatar zeramikaren zati batzuk.

Santiagomendi: goi-inperioaren garaia. Erromatar garaiko zeramika-multzoa; K.a. II. mendetik K.o. I. mendera artekoa.

Ataun:

Jentilbaratzeko eraztuna: urrezko eraztuna, seguruenik bisigodoen garaikoa, erromatarren erako eraztuna; testuingurutik kanpoko pieza.

Otadizelain, Gordiano III.aren denarioa: 238. urtekoa; testuingurutik kanpoko pieza.

Usategiko haitzuloan: denario iberiarrak (K.a. 105 eta 82. urteen artekoa); testuingurutik kanpoko txanponak.

Azkoitia: **Iraurgiko San Martin:** urrezko eraztuna, seguruenik bisigodoen garaikoa, erromatarren erakoa. Iraurgiko San Martineko errauts-kutxak, errausketa hondakinak, beirak eta metalezko ostilamenduak dituztela; erromatarren nekropoliekin erlazionatzen dira.

Belauntza: (Tolosa ondoan): erromatarren garaiko zeramika-materiala, I-V. mendeen artekoa.

Deba:

Ekain IV-ko haitzuloa: zeramika zatiak.

Ermittiako haitzuloa: berantiarreko erromatar zeramika materialak, *terra sigillata* motakoak.

Donostia/San Sebastián:

Alde zaharrean: testuingurutik kanpoko erromatar materialak: zeramika erromatarren zatiak hainbat orubetan: anfora zatiak, zeramika arrunta, *terra sigillata* hispanikoaren zatiak, zeramika arrunta, K.o.ko I. eta II. mendetakoak.

Kontxako Badia: ardo-anfora baten zatia, seguruenik II. mendekoa, 134-138. urteen inguruko txanpona; baita zeramika erromatar arrunteko zatiak.

Santa Teresa komentua: zeramika erromatarraren material ugari; horrez gainera, pabilioiko mendebaldeko fatxada-ri itsatsitako metro inguruko zerrendan erromatar eraikuntzako material pilaketa garrantzitsua, batez ere adreiluzkoa, erregistratu zen; *terra sigillata* hispanikoaren hondakinak, zeramika arrunta, metalezko objektuak, etab.; I-II. mendeetakoak.

Enirio-Aralar:

Arritzagako meatzeak: lur azalean bildutako erromatar materiala.

Lokatzako haizuloa: erromatar materialak: *terra sigillata* zati bat, eta Turiasoko txanpon-etxeke brontzezko txanpon iberiar bat.

Eskoriatza:

Aitzorrotzeko gaztelua: hasierako okupazio fasean behar bada erromatar garaiko zaintza edo artzaintza postu bat egon zen bertan IV-V. mendeetan zehar, geroago bertan behera utzi zena; erromatarren materialak...

Alde zaharrea: Gune historikoan zeramika-materialak eta hondarrak; I. edo II. mendeetako *sigillata hispanica*; erromatarren zilarrezko dozena erdi txanpon.

Getaria:

Elkano kalea 20-22, Nagusia 23: zeramika erromatar zatiak.

Kale Nagusia, 14: *terra sigillata* motako zeramika inportatuak eta produkzio lokaleko zeramika arruntak.

Kale Nagusia, Famili Gurasoen orubea: behe-inperioko zeramika-hondarrak.

Meagako hilarria: erromatarren agintaldikoa, K.a.ko I. mendearen eta K.o.ko III. mendearen artekoa.

San Salvador parroquia-eliza: batez ere zeramikazkoak ziren erromatar ostilamenduen aurkikuntza; *terra sigillata* erako zatiak eta zeramika arruntezko multzo handia, I-V. mendeetakoa; erromatarren garaiko kokagunean eraikitako hilerria; *terra sigillata* hispanikoko eta mota arrunteko zeramika-lekukoak eskuratu ziren.

Zarautz Jauregia: hirigunean, IV. mendeko bigarren aldiko zeramikak.

Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra:

Oltzako aldare-barria: erromatar aldarea.

Urbia: zeramika erromatarrak agertu dira Urbia haraneko hainbat tokitan.

Hondarribia:

Higer lurmuturreko urpeko aztarnategia: erromatar kulturako ohiko elementuak: zeramika aleak, txanponak, altzarietako metalezko ezarkinak... (I-IV. m.), brontzeko aurkikuntzak (II-III. m.), txanponak (I-IV m.); inportatutako zeramika, anforak, *terra sigillata* hispanikoa (I, II m.) eta paleokristauko *sigillata* (IV-VI. m.), etab.; mahai, sukalde, garraio eta biltegiarako zeramikazko materialak, metalezko objektuak eta txanponak; galdutako untzien aztarnak, aingurak, kanoiak, arrantza-elementuak, etab. eta beste zenbait aztarna arkeologiko. Erromatarren kokagunearen presentzia.

Montserrateko hilarria: jatorri erromatarra duen hilarria.

Pampinot kalea: erromatar material arkeologikoak...; erromatar aldare bat.

San Enrike gotorlekua: txanpon bat hondartzan, Antonino Piren brontze handia, K.o. 138koa; Nerva-ren brontzeko txanpona (txanpona egin zuten data: K.o. 96. urtea).

Idiazabal: brontzeko sei txanpon handi; bost ezagunak (bi Antonino Pio-renak, bat Faustina Nagusiarena eta bi Komodo-renak).

Irun/Oiasso: antxinako historiagileen aipaturiko hiria.

Ama Sorosleen sora: erromatarren garaiko zeramika hondarrak, oso biribilduak eta hondatuak, tokiz aldatuak izanaren arrastoak dituztela.

Andrearriagako estela: hileta-izaerazkoa; I. mendeko bigarren aldikoa; bertan Valerio latinezko izena agertzeak erromatarren eraginak bertoko onomastika ukitzen duela adierazten du.

Behobiako txanpon sorta: II. mendean egindako hamaika asek eta hiru dupondiok osatutako multzo.

Beraketa kalea: zeramika zatiak eta Celsan, K.a.ko 12 eta 6 bitartean egindako Augustoren txanpon baten aurkikuntza; garai kronologiko berbereko burdinazko hainbat pieza.

Beraun etxea: lorategian eta baratzean zeramika-hondarrak jaso ziren, *sigillatak* zein anforak.

Beraungo termak: erromatarren garaiko aztarna garrantzitsuak, beraien artean *opus spicatum* deritzan zoladura zabala nabarmentzen dela; kokagune erromatarreko bainu publikoetako dependentzia ezberdinak ageri dira.

Bidasoa ibaiaren gaineko zubia: euskarriak I. eta III. mendean artekoak ditu.

Junkal plazatxoa: erromatarren lekukotasun garrantzitsuak aurkitu zituzten, ehundaka zeramika eta beira zati, txanponak...

Junkaleko eliza eta elizaren atzealdea: Junkaleko elizaren azpian, elizaren eranskin baten eta sakristiaren artean erromatarren garaiko aztarnategia agertu zen; erromatarren biltegiak zeuden: zeramika-hondakinak, hezurrezkoak, beirazkoak eta metalezkoak, II. eta III. mendeetakoak; hots, zeramika-materialak, txaponak, *terra sigillata* motakoak etab. K.a.ko 25.etik III. mendera artekoak.

Meazuri-Meagorriko meategi erromatarrak (Belbio): meategia; erromatarren garaiko material arkeologikoak aurkitu ziren.

San Fernando meategi erromatarrak: hondar erromatarrak.

San Juan eta Jenaro Etxeandia plazak: erromatar garaiko milaka objektu; erromatar zeramika-materialen artean nabarmentzekoak dira: Galia hegoko *sigillata* bildumak, argi-zuloak, tamaina handiko ontziak.

San Martzialeko txanpona: brontzezko txanpona, Vitelio enperadore izan zen 68-69. urteen artean egindakoa.

San Nartzisoko meategi erromatarrak: erromatarren garaiko material arkeologiko batzuk agertu ziren, hala nola, Heliosen irudikapena duen argiontzia, I. mendearen amaierakoa edo II. mendearen hasierakoa.

Santa Anako txanponak (Hendaia): txanpon erromatarrak...

Santa Elena ermitako nekropolia: zeramikazko errausketakutxen nekropolia, erromatarren Goi Inperioaren garaikoa, I. eta II. mendeetako; 106 kutxa, zeramika arruntezko 78 eltze, 5 pitxar, anfora bat, etab. erromatarren garako bi gune; zeramikak, metalak, txanponak, hezurak, etab. (I. eta IV. mendeen artekoa).

Santiago kalea (24-27. zk.): portuko biltegien presentzia; estuarioko uren ondoan jarritako biltegi multzoa; ondoen kontserbatuta dagoena *horreum* handi baten solairuan dago. Badira bertan *sigillata* bildumak, anforak, beirak, eraikuntzarako materiala; aztarnategi hau aroaldaketa unetik II. mendera arte erabili zen.

Santiago kaleko portua: K.o.ko I. mendeko erdialdean harreman ugariak izan zirela aditzera ematen duten hainbat erromatar material; Oiassoko erromatar portuaren lehen lekukoen aurkikuntza. Erakin-oinarrien aztarnak eta portuko egiturak beste muturrean. Untzitegia 70

eta 95. urteen artean eraiki zen. II. eta III. mendeetako hondar arkeologikoak.

Santiagokalea, 29. Paternain orubea: Santiago kaleko ontzitegi eta nasarekin lotutako lekukotasunak dira; erromatarren biltegiak, besteak beste bi *sigillata* zati txiki.

Santifer orubea: portuetako erromatarren biltegieta ezaugarriak: hainbat material arkeologiko, zeramikak, hezurak, maskorrak, etab. zituzten lohiak.

Sarasate kalea, 10, “Casa del lejiero” deitua: erromatarren garaiko hondar-materialak bazirela egiaztatu zuten.

Sarjia parkea: erromatar objektuak, gehienak zeramikazkoak.

Junkaleko eskola zaharren atzealdeko orubea: erromatarren garaiko hainbat material aurkitu ziren, hala nola, ontzizatiak, metal hondarrak, eraikuntzarako materiala etab.; era berean Kristoren ondoko IV. mendearen inguruan datatutako lau txanpon ere bai.

Tadeo Murgia. Portu instalazioak: lau arrapala zituen atrakalekua, harrizko zokaloa eta zurezko gaina dituen; hainbat objektu arkeologikoa bildu ziren, beraien artean nabarmentzekoak izanik zeramika-bildumak eta zurezko nahiz larruzko piezak; portu instalazioa, I. mendearen bigarren erdialdekoa, Beraun muinoaren alboan kokatuta zegoen estuarioaren barrenen.

Lezo: **Mukitarreko aztarnategia:** Oiasso erromatarren hiritik hurbil, Mukitarreko kastroaren itsas gaineko kokagune izan daitekeena, Gipuzkoan identifikatutako lehen itsas kastroa da; aztarnategian erromatarren garaiko zeramika-materialen presentzia egiaztatu da.

Morogi (Zarautz edo Getaria): *oppidum* erromatarra.

Mutriku:

Jentiletxeta II-ko haizuloa: kronologia ezberdinetako mila txanpon inguru aurkitu dira, halakoen artean berrogeita hamar bat Konstantino I.arenak, K. o. 330 eta 335. urteen artean egindakoak.

Lesta II-ko haizuloa: Akitaniako zeramika grisezko zatia, besteak beste Augustoren garaiko edalontzi bat.

Oiartzun:

Arditurriko meatzeak: erromatarren 44 meatoki katalogatu dira; garrantzitsuena Aiako meategi handia; jarduera intentsiboa izan zuten; 600 gizonek berrehun urtetan zehar jardun izan zutela lanean kalkulatzen da; zeramika-materiala (*terra sigillata* ugari), erromatarren garaiko txanponak (brontzezko bost txanpon).

Urkabe muinoa: IV. mendeko hondarrak.

Oñati:

Aitzgaineko haizuloa: *terra sigillata* hispaniko berantiarren zeramika zatia.

Anton Koba: produkzio lokaleko erromatar zeramika zatia...

Pasaia: Erromatarren txanponak. (erromatarren brontzezko as bat, Nerva agintariarena, K.o. 96. urtekoa izan daiteke).

Leintz-Gatzaga: ***Ur gazizko iturburua*** (Dorleta): beranduko *terra sigillata* berantiarren eta produkzio lokalaren zeramika; ostilamendu hauek V. mendearen inguruan datatu dira.

Tolosa:

Alde zaharrean: erromatar zeramika hondarrak eta bertako arrunta testuinguru zehatz gabekoak.

Intxurmurtegiko baitzuloa: Konstantzio I.aren brontzezko txanpona, *foliis* bat zehazki, 337-361. urteen artekoa.

Usurbil: ***Irigain ingurua:*** produkzio lokaleko zeramika material erromatarra.

Zarautz: I. eta IV. mendeen arteko kokagune erromatarra; garrantzi handiko Portu-kokagunea.

Arbiun: burdingintzarako kokagunea, IV. mendekoa; eskuratutako zeramika bildumak oso-osoan produkzio lokalekoak dira; erromatarren garaiko okupazioa; III. mendearen bukaerako eta IV. mendearen hasierako zeramika.

Ondartzako txanpona: Antonino Pio enperadorearen brontzezko txanpona (K.o. 138-161).

Santa Maria la Real: bi erromatar arkeologia-fase: zaharrena I. eta II. mendeen artean; bigarrena V. eta VII. mendeen artean; batez ere produkzio lokaleko zeramikak, baita *terra sigillata*-ren inportazioak; Galia hegoaldeko jatorriko zati batzuk ere bai; Kronologiaren arabera Behe Inperiokoak diren 11 txanpon; Zarautzeko lehen eliza, erromatarren garaiko kokagune baten gainean eraiki zen; erromatarren garaiko eraikuntza ageri da.

Trinidad kaleko txanpona: erromatarren garaiko txanpon baten aurkikuntza; Hadriano enperadoreari (K.o. 73-138) dagokion brontzezko sestertzio bat.

Zegama: ***Hillarria San Pedro ermitan:*** erromatarren garaiko inskripzioa, I. mendeko azken urteei edota II. mendeari dagokion kareharrizko oroitarrria, hileta-idazkuna duena, testuingururik gabeko pieza. Aldi luzeko erromatarren kokagunea izan zen, kronologikoki K.a. I. mendearen eta K.o. V. mendearen artean datatzen dena; badira, baita ere, Akitaniako buztinoletatik ekarritako zeramikak.

Zestoa: ***Amaldako aitzuloa***: zeramika arrunta eta Bar(r)skuneko txanpon-etxeko bi txanpon iberiar, K.a. II. mendearen amaiera eta K.a. I. mendearen hasiera artean eginak.

Zumaia: Urteaga zahar: produkzio lokaleko zeramikak, IV. mendekoak.

Bibliografia:

Alberdi Lonbide, X. – Pérez Centeno, J. M. – Barrio Bazaco, L. del, *Yacimiento de Mukitar y prospección en sus alrededores (Lezo, Pasaia)*, Arkeoikuska 2010, 427-428; 2011, 367-368.

Alkain Sorondo, Pia, *Iglesia de Santa María del Junkal*, Arkeoikuska 2011, 363-364.

Alkain Sorondo, Pia, *Aportaciones al conocimiento de las primeras etapas de ocupación de la aglomeración urbana romana de Oiasso, siglos I a.C. y I AD. Los materiales itálicos de la excavación de Bida-soa-Santiago, Irun (Gipuzkoa)*, Arkeolan 16 (2009-2010) 29-38.

Altuna, Jesus [etab.], *Carta arqueológica de Guipúzcoa*, Munibe 34 (1982) (1-3 fasz.) 1-242.

Ayerbe, Miren – Fernández Altuña, César, *C/ Embeltrán, 3 (Donostia-San Sebastián)*, Arkeoikuska 1996, 285-288.

Ayerbe, Miren, *Calles del casco urbano medieval (Zarautz)*, Arkeoikuska 1996, 319.

Barandiaran Maestu, Ignacio, *Guipúzcoa en la edad antigua. Protohistoria y Romanización*, Zarauz 21976, 126 or.

Barandiaran Maestu, Ignacio, *La romanización del País Vasco, in: Ciclo de Conferencias «Historia de Guipúzcoa»*, San Sebastián 1978, 17-36.

Barandiaran Maestu, Ignacio, *Notas sobre numismática antigua de Guipúzcoa*, ED 20 (1972) 287-298.

Benito Dominguez, A. M., *Cerámicas del yacimiento submarino del Cabo de Higer (Hondarribia)*, Munibe (Antropología-Arkeología) 40 (1988) 123-163.

Blázquez, J. M., *Nuevos estudios sobre la romanización*, Madrid 1989, 641 or.

Cepeda Ocampo, Juan José - Unzueta, Miguel, *Numismática bajoimperial romana del norte de la península ibérica*, Kobie-P 17 (1988) 133-155.

Echevarria, Ana Isabel - Urteaga, M. Mercedes, *La inscripción funeraria de época romana de la ermita de San Pedro (Zegama, Gipuzkoa)*, Munibe (Antropología-Arkeología) 40 (1988) 165-169.

Espinosa Ruiz, Urbano, *Calagurris Iulia*. Logroño, 1984, 353 or.

Esteban Delgado, Milagros – Martínez Salcedo, Ana – Ortega Cuesta, Luis Angel - Alonso Olazabal, Ainhoa – Izquierdo Marculeta, M^a Teresa - Rechin, François, - Zuluaga Ibargallartu, M^a Cruz, *La cerámica común romana no torneada de difusión aquetano-tarraconesa (s. II a. C. – s. V d. C.): Estudio arqueológico y arqueométrico*, Kobie (Anejo 12) bilbao 2012, 277 or.

Esteban Delgado, Milagros, *Arbiun (Zarautz). IV Campaña de excavaciones*, Arkeoikuska 1996, 133-136.

Esteban Delgado, Milagros, *El poblamiento de época romana en Gipuzkoa*, Isturitz 8 (1997) 70-71.

Fatás, Guillermo, *Notas sobre el territorio vascón en la edad antigua*, Veleia (1985-1986, 2-3.zk.) 383-397.

Fernández Palacios, Fernando, *Zarauz o Guetaria como posibles lugares del antiguo oppidum Morogi*, Kobie (vol. 1) (2004) 445-454.

García Bellido, Antonio, *Los «Vardulli» en el ejército romano*, BRSVAP 10 (1954) 134-139.

García Bellido, Antonio, *Los «vascos» en el ejército romano*, FLV 1 (1969) 97-107.

García Camino, Iñaki, *Zarautz antes que Zarautz. La primitiva aldea en el contexto de la historia altomedieval de los territorios del litoral vasco*, in: Ibáñez Etxeberria, A., *Santa María la Real de Zarautz (País Vasco): continuidad y discontinuidad en la ocupación de la costa vasca entre los siglos V a. C. y XIV d. C.*, Munibe (Suplemento-Gehigarria 27), Donostia 2009, 376-399.

Gereñu Urzelai, Marian, *Novedades de arqueología romana en Irún-Oiasso. 1992-96*, Isturitz 8 (1997) 477.

Guereñu, Marian, *Convento de Santa Teresa (Donostia-San Sebastián)*, Arkeoikuska (2002) 488-489.

Guereñu, Marian, *Solar trasera antiguas escuelas del Juncal (Irún)*, Arkeoikuska 1996 136-141.

Ibáñez Etxeberria, Alex – Arretxea Sanz, Larraitz, *Iglesia de Santa María de La Real (Zarautz)*, Arkeoikuska (2001) 77-78; (2002) 127-133:

Larrañaga Elorza, K., *El becho colonial romano en el área circumpirenaica occidental*, Vitoria-Gasteiz, 2007, 773 or.

Larrañaga Elorza, Koldo, *Romanización*, in: *Diccionario Enciclopédico Vasco*. (EGIPV, 41) (San Sebastián, 1996) 267-312.

López Colom, M^a del Mar - Guereñu Urzelai, Marian – Urteaga Artigas, M^a Mercedes, *El territorio guipuzcoano. Análisis de los elementos romanos*, Isturitz 8 (1997) 154-156.

López Colom, M. M. – Gereñu Urzelai, M. M. – Urteaga Artigas, M^a Mercedes, *El territorio guipuzcoano. Análisis de los elementos romanos*, in: *I Coloquio Internacional sobre la Romanización en Euskal Herria*, Donostia/San Sebastian 1997, 151-173.

Michelena, Luis, *Guipúzcoa en la época romana*, BRSVAP 12 (1956) 69-94.

Montenegro Duque, Angel - Blázquez Martínez, José María - Solana Sainz, José María, *España Romana*, Madrid 1986, 626 or.

Pérez Centeno, Jesús Manuel, *Valles del Oria y el Urumea (Andoain, Hernani)*, Arkeoikuska (2000) 115-118:

Ramírez Sádaba, José Luis, *Vascones por las tierras del Imperio romano*, PV 76 (2015) 373-384.

Rodríguez Salís, Jaime, *Romanización en el Bidasoa. Datos para su estudio*, ED 20 (1972) 311-314.

Sagredo Garde, I., *Castillo de Atxorrotz (antes denominado “Aitzorrotz”)*, Arkeoikuska 2010, 353-364.

San Martín, Juan, *Ara romana en Hondarribia*, RIEV 31 (1986) 481-486.

Santos Yanguas, Juan, *El poblamiento romano en el área de autrigones, caristos, várdulos y vascones. Estado actual de la investigación y perspectivas*, EHHBB t. 1, San Sebastián 1988, 215-234.

Sarasola, Nerea - Morza, Alfredo, *Erdi aroko arkeologia Gipuzkoan. Arqueología medieval en Gipuzkoa*, Donostia-San Sebastián 2011, 263 or.

Sayas Abengochea, Juan José, *La Civitas de Oiasso y el límite noroeste entre Vascones y várdulos*, Veleia (1991-1992, 8-9. zk.) 193-218.

Segura Munguia, Santiago, *Mil años de historia vasca a través de la literatura greco-latina (De Aníbal a Carlomagno)*, Bilbao 1997, 292 or.

Urteaga Artigas, M^a Mercedes, *Minería romana en Gipuzkoa*, Isturitz 8 (1997) 491-515.

Urteaga Artigas, María Mercedes, *Los contactos comerciales de la ciudad de Oiasso: la cerámica del puerto romano de la calle Santiago*, Arkeolan 4 (1998) 15-19.

Urteaga Artigas, María Mercedes, *Se repiten los ballazgos romanos en la calle Santiago (Irun). Dos nuevos registros de depósitos inundados*, Arkeolan 10 (2001) 16-17.

Urteaga Artigas, Mertxe, *Las "noticias y descripción de las grandes explotaciones de unas minas antiguas situadas al pie de los Pirineos y en la provincia de Guipúzcoa" de Juan Guillermo Thalacker (1804)*, Arkeolan 12 (2004) 45-102.

Urteaga, Mertxe - Arce, Javier, *Erromatar arkeologia Gipuzkoan. Arqueología romana en Gipuzkoa*, Donostia-San Sebastián 2011, 243 or.

Urteaga, Mercedes, *Puerto romano de Tadeo Murgia (Irún)*, Arkeoikuska 1999, 375-378.

Julen Urkiza - P. Uribarren